

Txostena 2018



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



www.ongdeuskadi.org



AURKIBIDEA

AURKEZPENA

3

GURE EKIMENAK

5

30 urte aztarna uzten	5
Generoa	8
Eragin politikoa	10
Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza	12
Sektorea sendotzea eta zerbitzuak:	20
Publikoari, GGKEei eta instituzioei arreta	20
Formakuntzak eta jardunaldiak	23
Ikerketak	26
Komunikazioa	27

NORTZUK GARA

29

Gobernu Batzordea	30
Lan-taldeak	30
Erakundeetan partaidetza	31
Talde Teknikoa	32
GGKEak	32

KONTU ARGIAK

33



AURKEZPENA



Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko 79 erakundek (GGKE) osatutako kolektibo bat gara, eta nazioarteko lankidetzan eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan lan egiten dugu.

1988tik, kalitatezko garapenerako lankidetzan sustatzen dugu instituzio publiko eta pribatu-etan nahiz gure sareko kide diren GGKEetan. Beren lanean laguntzen diegu bazkide diren erakundeei, eta haien gaitasun politikoak eta teknikoak indartzen ditugu. Gure inguruko eraldaketa sozialari laguntzen diegu, eremu globalean ere aldaketak lortu ahal izateko. Eta hori guztia egiteko, partaidetzari nahiz gure garapen-eredu patriarkal eta neoliberalak pobrezia-erekin eta berdintasun-erekin duen loturari buruzko eztabaida kritikoari bide ematen diegu. Izan ere, elkartasun-kultura sustatu nahi dugu herritarren artean, eta gure inguruan eta planetako herrialde zaurgarrietan desberdintasunak eragiten dituzten egiturak ere aldatu nahi ditugu. Uste dugu pertsonen eta herrialdeen garapen oztopatzen duten mekanismoen gainean hezteko, sentsibilizatzeko eta kontzientzia hartzeko aukera ematen duela lankidetzak.

Justizia sozialaren eta genero-ekitatearen duen giza garapen iraunkorraren alde egiten dugu, pertsonen bizitzak eta haien duintasuna jarriz politiken erdigunean, eta ez beste lehentasun batzuk. Pobretutako herrialdeekin elkarlanean, giza garapena eragozten duten trabak kentzeko Euskaditik egiten dugun lana ulertzen dugu garapenerako lankidetzan gisa. Elkartasunean, elkarrekotasunean, eskuzabaltasunean eta doakotasunean oinarritutako prozesu bat da, ez da diru-transferentzia huts bat.

**WEB ETA YOUTUBE LOTURA
HAUETAN 2018AN EGIN DUGUN LANA
LABURBILTZEN DUEN BIDEOA
IKUS DEZAKEZU.**

Hauek dira gure hiru ekintza-lerro nagusiak: sektorea eta gure erakundea indartzea; euskal lankidetzaren politika defendatzea; eta komunikazioa eta gizartearen eraldaketa kontzientzia kritikoa sortzeko. Uste dugu garrantzitsua dela demokrazia parte hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero-ekitatea sustatzea. Horregatik, topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako espazioak ahalbidetzen ditugu, jarrera eta irizpide komunak adosteko. Era berean, guk bezala eraldaketa-helburuak dituzten beste mugimendu sozial batzuekin ere ehuntzen ditugu aliantzak.

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea nahiz kide diren erakundeak jokabide-kode komun bati jarraituz aritzen gara; kode horretan daude jasota gure lana gidatuko duten printzipioak eta balioak.

Kide diren GGKEek osatzen dute Batzar Nagusia, eta gutxienez urtean behin biltzen da urte bakoitzerako irizpideak eta jardueraren lerroak finkatzeko. Hura da erabakigune nagusia.

Lurralde bakoitzeko kideek osatzen dituzte Lurralde-Batzarrak, eta haiek dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkartzen gobernu-organok.

Gobernu Batzordea erakundearen organo be-
tearazlea da. Batzar Nagusiak erabakitakoa kontuan hartuta, jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu.

Kide diren GGKEek osatzen dituzte, berriz, lan-taldeak, eta erakunde guztientzat lan egiten dute zenbait arlotan, hala nola eragin politikoari, generoari, komunikazioari, mobilizazioari

eta gizarte-erlaketarako hezkuntzari lotutako gaietan.

Hiru lurralde-ordezkaritzek eremu horietan hartutako erabakiak betearazten dituzte Talde Teknikoaren laguntzarekin; horrez gain, informazio- eta aholkularitza-zerbitzua erakundeei, euskal lankidetzako eragileei eta herritarrei eskainiz.

Garapenerako GKEen Espainiako Koordinakundeko kide gara 1999. urteaz geroztik. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuria saria eman zigun, garapenerako lankidetzan egindako ibilbideagatik.

Euskararekin dugun konpromisoaren erakusle, Araban eta Bizkaian *Euskararen bidean* ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, *Zerbitzua euskaraz* ziurtagiria, biak *Bai Euskarari* elkarteak emanak.





30 urte aztarna uzten

2018an, lankidetzako euskal politikek eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 30 urte bete ditugu. Horrek aukera eman digu gizarteari nazioarteko elkartasunak egiten duen lana ezagutarazteko, bai eta bere laguntzari esker erdie-tsitako lorpen batzuk erakusteko ere. Egindako ibilbidea ospatzeko aukera ere eman digu GGKEoi, instituzioei eta gizarteari. Hauek dira *30 urte aztarna uzten* leloarekin egin ditugun jardueretako batzuk:

— GGKEek eta sektoreko erreferentziazko pertsonak 30 urte hauetan egindakoari buruzko dokumentazio-lan bat egin dugu, euskal lankidetzaren bilakaera eta mugarri nagusiak gogoratzeko. Genero-Taldeak otsailaren 20an Bilbon antolatutako *Emakume erresistenteak euskal lankidetzan* tailerra eta maiatzaren 10eko Batzar Nagusian egindakoa izan dira nabarmentzekoak.

— Ospakizunarekin bat egin duten pertsona ezagunekin bideo-manifestu bat egin dugu: Unax Ugalde, Gorka Otxoa eta Maribel Salas aktoreek; Jordi Evole, Gervasio Sanchez eta Rosa Maria Calaf kazetariak; Iban Garrate komunikatzaileak; La Otxoa eta Francis Diez abeslariak; Virginia Imaz pailazo eta ipuin-kontalariak; Morena Herrera aktibista feministak; eta Eva Arguiñano gozogileak.

— Irailaren 27an, *30 urte aztarna uzten* egitasmoaren ospakizun-gala antolatatu dugu Bilboko Euskalduna Jauregian, Rosa Maria Calaf kazetariak eta Gorka Otxoa aktoreak aurkeztuta. *Kukai Dantza* taldearen ikuskizuna izan dugu, eta GGKEetako kideak, instituzioetako, alderdi politikoetako eta mugimendu sozialetako ordezkariak, bide honetan gurekin izan diren lagunak nahiz euskal gizarteko beste pertsona batzuk izan dira gala honetan. *Eraldaketa*ko lankidetzak mahai-ingurua burutu dugu, Arcadi Oliveres ekonomista eta aktibista sozialarekin eta Yayo Herrero antropologo eta ekofeministarekin; bai eta Helena Maleno migrazioetan eta pertsonen salerosketan aditua den ikertzailearekin, bide bidez parte hartu duena. Omenaldia ere egin zaie 30 urte hauetako lankidetzan lagundu duten eragileei: erakundeei, kooperanteei, Hegoaldeko erakundeei, boluntarioei, komunikabideei, Euskadiko GGKEen Koordinakundea sortu zuten GGKEei nahiz tokiko kolektiboiei.



— Euskal lankidetzak lantzen dituen arlo ezberdinei buruzko zortzi bideo egin ditugu kide diren GGKEen partaidetzarekin, lankidetzaren aurpegiak ezagutarazteko modu errazean, originalean eta berritzailean.

— Gasteizko Udalaren eta *Fill in Culture* kolektiboaren lankidetzarekin, Gasteizko Ariznabarreko kiroldagiko kanpoko aldean mural bat egiteko gestioak egin ditugu, urteurren hau eta hiriak lankidetzarekin duen inplikazioa omentzeko. Azkenean, 2019an inauguratu da murala, otsailaren 11n.

— *30 años abriendo puertas al mundo* izenburua duen aldizkaria egin dugu, besteak beste, bide horren berri izateko eta sektorearen erronkak, lorpenak nahiz protagonistak ezagutzeko.

— Urte osoan antolatu ditugun jarduera guztietan egon da presente euskal lankidetzaren 30. urteurrenaren ospakizuna, besteak beste, Donostian egindako *Ilargi azpian, mundu zabala errealtate anitz* jardunaldian, edo Gasteizen egindako *Gasteiz konexioa* egitasmoan.



Ezagutu

30. URTEURRENEKO JARDUNALDI HORIEK GUZTIAK WEB HONETAN



Generoa

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegi bermatuta dagoela zaintzen dugu; arlo horretan instituzio publikoekin aritzen gara; eta GGKEak eta beste gizarte-eragile batzuk prestatzen eta bultzatzen ditugu gai horretan. Hauek dira nabarmentzeko moduko jardueretako batzuk:

- Gure genero-politikari jarraipena egin diogu, eta bete dadin zaindu dugu.
- Instituzio publikoen hainbat dokumenturi egindako gure ekarpenetan genero-ikuspegi txertatua zegoela bermatu dugu.
- Generoaren eredu-dokumentua amaitu dugu, eta Batzar Nagusiak onartu du hura. Gai horri lotutako zenbait akordio eta kontsentsu biltzen ditu.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta kide diren erakundeen *Sexu-jazarpen, sexuan oinarritutako jazarpen eta sexu-orientazioari lotutako jazarpen kasuen prebentzio- eta jardute-protokoloa* egiten hasi gara. Helburua da prebentzio-, detekzio- eta zigor-tresnez hornitzea geure burua, sexu-jazarpeneko jokabide guztiak eta sexuan oinarritutako jazarpen guztiak desagertzeko lankidetzan. Arazo hori lantzea eta sektorean aurrerapauso bat ematea nahi dugu, biktimak babestuz eta haien eskubideak bermatuz. Lan-talde bat sortu dugu, eta bilerak eduki ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, Emakunderekin eta adituekin. Kide diren erakundeek eta beste erakunde

sozial batzuek dituzten antzeko dokumentuei buruzko informazioa ere bildu dugu. Asmoa da 2019ko Batzar Nagusi batean onartzea protokolo hori.



Ecuador Etxea

— Euskadiko GGKEen Koordinakundearentzako genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko lanean jarraitu dugu. Haren bidez, bide bat marraztu nahi dugu, kide diren GGKEek jarraitzeko, eta, aldi berean, genero-ekitatearekin dugun konpromisoan aurrera egiteko, baita lankidetzan ere. Horretarako, barne-azterketa bat egin dugu, eta ateratako ondorioak eta gomendioak Batzar Nagusian aurkeztu ditugu. Horrez gain, Talde Teknikoak eta Genero Taldeak prestakuntza-saioak eta bilerak izan dituzte Yolanda Jubeto EHUko irakaslearekin eta arlo horretako adituarekin, prozesu honetan laguntzen ari baitzaigu.

— Gure genero-politikak eskatzen duen bezala, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure erakundea ordezkatzeko duen pertsona batek mantendu du genero-arduradunaren postua.

— Harreman instituzionalei eta genero-ekitateari dagokienez, bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero-arduradunarekin lan-agendak partekatzeko, informazioa trukatzeko eta elkarrekin lan egiteko bideak aztertzeko.

— Garapenerako lankidetzan genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren alde lanean jarraitzeko helburuari lotuta, Genero-Taldeak prestakuntza-prozesu bat diseinatu du ahalduz pertsonalari eta GGKEetako emakumeen kolektiboari bideratuta. Hasiera batean, asmoa zen prozesu horrek bost saio izatea, eta 2019an egitea. Alabaina, horietako lehena egin da dagoeneko, hain zuzen, abenduaren 20an, Bilbon. Prozesuari jarraipena egingo dion taldea osatu da, eta hurrengo saioetako edukiak zehaztu dira.

— Genero-ikuspegia txertatu dugu antolatu ditugun prestakuntza-saioetan eta jardunaldietan. Gainera, gaiari buruzko prestakuntza-ekintza espezifikoak garatu ditugu gure erakundea osatzen duten pertsoneri, gainerako GGKEei eta kolektiboari, erakunde publikoari, euskal lankidetzako gainerako eragilei nahiz euskal gizarteari bideratuta.

— Gure komunikazio-jardunean ere txertatu dugu genero-ikuspegia, dela komunikazio horiek egiteko ikuspegiaren bidez, dela komunikazioen edukien bidez.



Eragin politikoa

Erakunde publikoekin eta alderdi politikoekin lan egiten dugu kalitate oneko lankidetzapolitika deszentralizatua sustatzeko eta haren balioa azpimarratzeko:

— Harreman egonkorra dugu lankidetzapolitikak egiteko ardura duten eragileekin. Azpimarratzekoak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, hiru diputazioetako eta Gasteiz, Bilbo, Donostia eta beste herri batzuetako udaletako lankidetzasailekin, bai eta, esate baterako, Eusko Legebiltzarreko eta Batzar Nagusietako oposizioko taldeekin egiten ditugun bilerak. Alderdi politiko batzuetako zuzendaritzekin ere izan ditugu elkarrizketak. Hain zuzen, 2019ko udal- eta foru-hauteskundeen harira, gure eskaeren berri eman diegu, beren hauteskunde-programetan sar ditzaten.

— Uztailaren 9an, agerraldia egin dugu Arabako Batzar Nagusietan, besteak beste, lankidetzari buruzko gure ikuspegia emateko, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu bateratuaren %0,7 lankidetzara bideratzeko agindua betetzeko eskatzeko eta garapenerako politiken koherentzia sustatzeko.

— Alderdien eta instituzioen zenbait dokumenturi egin dizkiegu ekarpenak, eta *Diru-laguntzen oinarri orokorrek eta deialdi publikoen irizpideak* izeneko gure dokumentua ere banatu diegu, hiriburu ez diren euskal udaletan kalitatezko lankidetzapolitika sustatzeko.



Eusko Legebiltzarra



— Elkarrikketa- eta partaidetza-espazioetan ordezkariak aktiboak izaten jarraitzen dugu, jarraipena egin diegu haien agendei, eta proposamen eta ekarpenak aurkeztu ditugu eta gure iritzia eman dugu; besteak beste, espazio hauetan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorean; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan (eta haren Batzorde Iraunkorrean); Kanpo Harremanetarako Batzordean; Lankidetzako Bilboko Udal Kontseiluan (eta haren Batzorde Exekutiboan), Donostiakoan (eta haren Batzorde Iraunkorrean) eta Gasteizkoan (gaur egun Elkargune deritzon); Gasteizko Gizarte Kontseiluan; Arabako Foru Aldundiaren *Eskutik Mundura* prozesuan eta Elkarrikketa Zibilerako Mahaian.

— Gainera, erakundeek garapenerako laguntza ofizial gisa ematen duten ehunekoa kalkulatzeko sistema homogeneo bati buruzko proposamenarekin jarraitu dugu. Gure helburua da, malgutasunez, barne-produktu gordinaren %0,7 horretara bideratzeko nazioarteko konpromisorantz aurrera egitea.

— Erakundeen aurrekontuaren osaketan eragiten saiatu gara, gobernu-taldearen hasierako proposamenetik hasita, eta oposizioko alderdi politikoak ere kontuan hartuta. Zazpi euskal erakunde nagusiek lankidetzara bideratutako aurrekontuen zenbatekoan jarri dugu arreta bereziki.

— Jarraipena egin diegu erakunde nagusien egitasmoei, ahal duten heinean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta 2030 Agendako helburuak betetzen laguntzeko. Erakunde horiek indarrean dagoen lankidetzako legedia betetzen duten ere azter-

tu dugu. Hain zuzen, Donostiako Udalak akordioak etengabe urratzen dituela salatzeko, protesta-ekintza puntual gisa, abenduaren 13an alde egin dugu Donostiako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilutik, beste erakunde batzuekin batera, soinean *%0,7 noiz? Hitza bete* leloa zuten kamisetak genituela.

— Instituzioekin lan egin dugu garapenerako politiken koherenziaren arloan, eta gobernu baten ekintza guztiek lankidetzaren eragina hobetzeko helburu partekatua izan behar dutela esan diegu. Horretarako, bermatu egin behar dute politika guztiak bat datozela garapen humano, bidezko eta iraunkorrerako helburuekin eta pobrezia eta desberdintasunen aurkako borrokarekin, jarduera bakar batek ere ez ditzan geldiarazi edo baliogabetu lankidetzari esker lortutako aurrerapenak.

— Gure erakundeen aurreko urteetan gauzatutako *Urrats bat gehiago* barne-gogoeta prozesutik sortutako lan-taldeek lanean jarraitu dute, adostasunak zehazteko eta lortzeko. Hauek dira lan-taldeak: Ekintza Humanarioa eta Larrialdiak; Aurrekontuak; Tresnak eta Lehenetsun Geografikoak eta Sektorialak; Koherentzia Instituzionala; eta Barne-Koherentzia. Lehen lau lan-taldeetan, akordio horiek bakoitzari dagozkion eredu-dokumentuetan gauzatu dira, eta 2018ko Batzar Nagusiak onartu ditu. Azken lan-taldeari dagokionez, berriz, lanean jarraitzen du, izan ere, lotura estua du ere berrikusten ari garen barne-erregimenaren araudiarekin.



Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza

Mobilizazioak antolatzen ditugu, GGKEek eta beste kolektibo batzuek sustatutako egitasmoak babesten ditugu eta sentsibilizatorako jardunaldiak eta jarduerak egiten ditugu gure gizartearen eraldaketan aurrera egiteko:

— Sistema neoliberal eta patriarkalak eremu globalean eta tokiko eremuan dituen ondorio nagusiak azaltzea da *Zein da zein?* kanpainaren helburua, eta arduradun nagusiak identifikatu eta esku hartzeko estrategiak gomendatzen ditu. Honen barruan, Gasteizko lau ikastetxetan, Laudioko bitan eta lurretako batean eman ditugu tailerrak. Zenbait GGKEk hartu dute parte haietan, eta beren proiektuen eta esperientzien berri eman dute.

— Maiatzaren 18an, Amurrioko Udalarekin elkarlanean, *Amurrioko XVIII. Azoka Solidarioa* antolatu dugu; eta urriaren 26an, berriz, Laudiokoarekin elkarlanean, *Laudioko XII. Azoka Solidarioa* antolatzen lagundu dugu Pobreziaren Aurkako Astearen barruan. Herritarrei elkartasuna eta lankidetzaren ezagutaraztea da bi egitasmo horien helburua.

— Ekainaren 8an, *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu Donostian, *Ilargi azpian, mundu zabala errealitate anitz* izenburuarekin. Udako kaleko zinema-saio bat antolatu dugu, eta Marilyn Solaya zuzendariaren *Vestido de novia* filma eskaini dugu. Gainera, emanaldiaren aurretik, kaleko zenbait ospakizun-ekitaldi antolatu ditugu Euskadiko lankidetzaren 30 urteak ospatzeko.



— Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta Zero Pobrezia kanpainaren barruan, pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu. *Klima-aldaketak dena aldatzen du* lelopean, zenbait kolektibo elkarrekin aritu gara Pobreziaren Aurkako Asteon:

— Araban, zineforum bat antolatu dugu Gasteizen urriaren 17an, *Gracias por la lluvia* pelikularekin, eta klima-aldaketan aditua eta *Acción Ecológica de Ecuador* erakundearen sortzaileetako bat den Ivonne Yanezek parte hartu du.

— Gipuzkoan, jarduera hauek egin ditugu Donostiako Zero Pobrezia plataformak antolatuta (gure esku dago dinamizazioa), eta horietako bitan Kristina Enea Fundazioaren lankidetzaz izan dugu: urriaren 15ean, zineforum bat Donostian *Gracias por la lluvia* filmarekin; 17an, plataforma honen aurkezpena Tolosan Zutani-Tolosa kolektiboaren lankidetzarekin; 19an, klima-aldaketari buruzko antzezlanaren eskutik; eta 20an, Donostian, bizikleta-martxa egin dugu Haizearen Orrazitik Zuloaga plazaraino Txita Sound Systemen animazioarekin, eta amaieran clown emanaldia izan dugu Kontukantoi taldearen eskutik.





Horrez gain, urriaren 16an, Donostiako Zero Pobrezia plataformak EHUren Gizarte Hezkuntza graduan parte hartu du Donostian. Urtean zehar ere beste jardueretan aritu da plataforma, hala nola abuztuaren 13ko Abordaian eta martxoaren 4an Donostian egindako Lilatoia lasterketa herrikoian, *Sinesten dizuegu* lelo partekatuarekin.

— Bizkaiian, urriaren 17an, Euskadiko erakundeekin, kolektibo sozialekin, auzo-elkarteekin eta sindikatuarekin batera, manifestazio bat antolatu da Bilbon, *La pobreza: un problema de derechos humanos. RGI murrizketarik ez!* leloarekin.



—• Azaroaren 5etik 15era, *Sentitu, pentsatu, ekin* leloarekin, Aguraingo Aste Solidarioa antolatu dugu hango udalarekin batera. Zenbait sentsibilizazio-jarduera egin dira, hala nola erakusketak, zineforumak eta pin-txo pote bat, non kide diren zenbait GGKEK hartu duten parte, Amurrioko biztanleekin batera.

—• Begoña Beristain kazetariak aurkeztuta eta Kultura Reggae Band taldeak girotuta, *Gasteiz konexioan: emakumeak protagonista dituzten elkarlotutako istorioak* sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu azaroaren 22an Arabako hiriburuan, hiritarrei gure gizartearen eta pobretutako herrialdeen arteko loturak erakusteko. Mboolo elkar elkarteko

emakume afrikarrek, El Salvadorko *Colectiva Feminista* erakundeko kideek nahiz Arabako Emakumeen Asanbladako kideek parte hartu dute, bai eta Oihulari Klown taldeko pailazo eta kontalaria den Virginia Imazek ere, euskal lankidetzaren 30 urteak gogoratzeko.



Helburu berak dituzten beste gizarte-eragile eta -mugimendu batzuekin ere baditugu alian-tzak, eta sarean lan egiten dugu, horrek ekintza gehiago egiteko eta gehiago eragiteko aukera ematen baitigu:

— *Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan* parte hartzen dugu. Gizarte-mugimenduek eta sindikatuek osatutako plataforma da, eta haren helburua da gure ekonomia eta baliabi-deak herritarren zerbitzura jartzea, pertsonen

bizi-baldintza duinak izan ditzaten oinarrizko eskubide sozialak aitortzeari eta betetzeari esker. Zenbait ekintza antolatu ditu, tartean po-breziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako herri-ekimen legegilea, eta haren sinadura-bilketaren fasean lagundu dugu.

— *Sareen Sarea* elkarteko kide egin gara. Eus-kadiko hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen sareak biltzen ditu, eta haren helburua da gizarte kohesionatu, inklusibo, solidario eta parte har-

tzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen. Gizarte-sektore sendo eta aintzatetsi bat egituratzeko aukera ematen du, bai eta politika publikoetan eragiteko gaitasun handiagoa izateko aukera ere. Nabarmentzekoa da maiatzaren 14an Donostian ospatutako Hiru-garren Sektorearen Eguna. Sare horretako kide izateari esker, *Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko* gure partaidetzak koordinazio handiagoa du espazio horretan parte hartzen duten hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin.



— Euskal Herriak TTIPari EZ! plataforman parte hartzen dugu. Hitzarmen horren negoziazioei jarraipena egiten die plataformak, eta edukien eta mehatxuen berri ematen die herritarrei. Maiatzaren 4an eta 5ean Bilbon egindako *Euskal Herria kapitalaren eraso berriaren aurrean* jardunaldietan izan gara. Plataforma horrek gogoeta bat egin du, eta 2019tik aurrera, *Euskal Herriak kapitalari planto!* izenarekin helburuak zabalduko ditu, eragin handiagoa lortzeko.

— Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren defentsan aritzen direnen

sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Martxoaren 8ko Bizkaiko Koordinakunde Feministan parte hartu dugu (Emakumeen Nazioarteko Egunean), eta mobilizazioen leloa *Emakumeok planto!* izan da. Azaroaren 25eko Bizkaiko Koordinakunde Feministan ere hartu dugu parte (Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean), (*In*) *justizia patriarkalaren gainetik sarete feminista* leloarekin. Era berean, urriaren 22tik 28ra, Bilbon, Emakumeon Mundu Martxako Mugimendu Feministaren II. Nazioarteko Topaketan parte hartu dugu. Donostian ere koordinatuta egon gara, gure kide diren

erakundeetako mugimendu feministako pertsona aktiboen bidez, azaroaren 25eko manifestazioetan presente egoteko.

— Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin, Medicusmundi Gipuzkoarekin eta bestelako kolektibo sozial, elkarte eta GGKEekin batera, Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako XXII. martxan lagundu dugu. Donostian egin da martxoaren 25ean, *Ez gara neskek, langileak baizik* leloarekin, zaintzaren arloan lan egiten duten pertsona migratzaileen eskubideak aldarrikatzeko.





— Donostiako Udalarekin eta beste kolektibo batzuekin elkarlanean, Donostiako XVI. Giza Eskubideen Zinemaldian hartu dugu parte, apirilaren 20tik 27ra.

— Pertsonak bizitza iraunkorra bizitzeko duten eskubidearen urraketa salatzen duen Desazkundea eta Bizitze Ona taldeak sustatutako *Bizimodu jasangarrien aldeko Herri-Auzitegia* zabaltzen lagundu dugu, urriaren 23an eta 24an, Bilbon, egindakoa.

— Garapenerako GKEen Espainiako Koordinakundeko kide gara. Haren lanari jarraipena ematez eta haren egitasmoak babesteaz gain, haren ohiko batzar orokorrean parte hartu dugu apirilaren 12an Madrilan, bai eta Erkidegoetako Koordinakundeen Sarearen espazietan ere, urtarrilaren 27an eta maiatzaren 19an. Horrez gain, urriaren 19tik 21era bitartean, *Islas Encendidas* izenburuarekin *Quorum*

Global topaketan parte hartu dugu, Malagan. Haren helburua aldaketa sozialaren alde lan egiten duten askotariko eragileak konektatzea izan da, batzeko eta sendoago izateko eta eragin handiagoa lortzeko.

— Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataforman parte hartzen dugu, errefuxiatuen eta migratzaileen egoera salatzen eta haien elkartzuna erakusteko plataforman. Batzarretara joateaz gain, antolatu dituen ekintzak babestu ditugu.

— Hirugarren sektore sozialean berrikuntza soziala sustatzeko asmoz, *Begirada* proiektuan jarraitu dugu, beste erakunde publiko batzuekin, EHUREkin eta hirugarren sektoreko erakundeekin batera. Amaitu da *Gizarte Berrikuntza Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean* ikerketa; bi *world cafe* egin dira Bilbon eta Gasteizen hari buruzko ondorioak eta gomendioak ateratzeko; eta horiek kide diren GGKEekin partekatu ditugu.

— Fiareri laguntzeko elkartean ere parte hartzen dugu. Haren helburua da Euskadin banka etikoaren sistema bat finkatzen laguntzea.



Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia

Aldaketa sozialaren alde eta mundu zuzenago eta bidezkoago baten alde lan egiten duten eragileak diren heinean, gizarte-eraldaketa hezkuntza funtsezko zutabeetako bat da GGKEen lanean. Hau da gauzatu dugun lanaren zati bat:

— GGKEek eta EHUren Gipuzkoako campuseko unibertsitate-eragileek osatutako *Unibertsitate Kritikoa Sarearen* bidez, ahaleginak koordinatzeko, baliabideak optimizatzeko eta gure gizartean ahalik eta eraginik handiena lortzeko lanean ari gara, gaur egungo garapen-ereduari buruzko irakurketa kritikoa egin dezan unibertsitateak eta ez ditzan bere botere-mekanismoak betikotu, eta, modu horretan, bere benetako funtzio soziala berreskura dezan. Sare horrek egindako lanari dagokionez, nabarmentzekoak dira: unibertsitateko gradu-amaierako lanek hezkuntza kritikoari buruzko ikuspegia txerta dezaten egindako gogoeta; Emaus Gizarte Fundazioak, Eibarren, uztailaren 11n Udako Euskal Unibertsitatean, *Unibertsitate Ekintzailea Eraikitzen: Euskal Herriko eta Latinoamerikako begirada eta proposamenak unibertsitate eta gizarte eragileentzat* ikastaroan parte hartu izana txosten batekin; abenduan, Mediterraneok irentsitako zapatei buruzko ekintza-omenaldia babestu izana; eta Gipuzkoako campuseko unibertsitate-hedakuntzarako errektoreordetzaren argitalpen batean egindako kolaborazioa.

**EZAGUTU SARE HORREN
LANA WEB HONETAN**



— Hezkuntzako baliabideen web-orri bat egin dugu kide diren GGKEek egindako materialekin. Erreferentziazko gune bat izan nahi du hezkuntza-erakundeentzat eta norbanakoentzat, bilaketak gaien eta materiala bideratzen zaien pertsonen adinaren arabera egiteko aukera emanaz.

Arabian eta Gipuzkoan, GGKEen gizarte-eraldaketa hezkuntza-eremuko jardueren agenda bateratu bat egin dugu, haien arteko koordinazioari laguntzeko.

Bizkaiko Gizarte-Eraldaketa Hezkuntza-Taldeak lanean jarraitu du, eta zenbait saio egin ditu etorkizunean Gizarte-eraldaketa hezkuntzaren eredu-dokumentua izan daitekeen testu baten oinarri komunak finkatzeko.

GGKEek

**GURE GERTUKO EREMUTIK
MUNDUAREN ERALDAKETARI LAGUNTZEKO
PRESTATUTAKO BALIABIDEAK ETA MATERIALAK
WEB HONETAN EZAGUTU**



Sektorea sendotzea eta zerbitzuak

Publikoari, GGKEei eta erakundeei arreta

Kide diren erakundeei gai hauei buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eman diegu: lankidetzak, diru-laguntzen deialdiak, GGKEentzako zerbitzu eta baliabideak, enplegu- eta boluntarioritza-eskaintzak, prestakuntza, materialaren mai-legua, genero-berdintasuna, komunikazioa, eragin politikoa, giza mobilizazioa, gizarte eraldatzeko hezkuntza eta administrazio-izapideak, besteak beste.

Informazio eta aholku eske etorritako norbanakoei ere eman diegu arreta, batik bat GGKEetan boluntario-lanak egin nahian edota elkartasuna emateko Hegoaldeko herrialdeetara joateko aukerez galdezka etorritakoei, eta bideratu ditugu. Horretarako, *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi? Nola parte hartu* txostena eguneratu dugu.

Lan-poltsa kudeatu dugu, eta jasotako donazioak bideratu ditugu. GGKEekin aritzen diren eta kide diren erakundeei deskontu, hobari edo ekarpen solidarioak ematen dizkieten eta sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu.

Martxoaren 14an, Gasteizen, kide diren GGKEekin egindako tailer baten bidez, kide horien partaidetza hobetzeko nahiz gure erakundea eta gure kide diren GGKEak sendotzeko duela urte batzuk hasitako azterketa-, gogoeta- eta ikerketa-prozesua amaitu dugu. 2018an, prozesu horretatik etorritako aldaketak eta proposamenak ezartzen joan gara.



Euskadira nazioarteko elkartasun-karabana informatibo bat zetorrela baliatuz, ekainaren 27an, Bilbon, *Zer ari da gertatzen Nikaraguan?* izeneko topaketa antolatzen lagundu dugu. Herrialdearen egoeraren berri ematea eta partekatutako eta koordinatutako estrategiak egituratzea izan da helburua.

Bi Batzar Nagusi (martxoaren 10ean Donostian eta ekainaren 29an Gasteizen) eta 22 Lurralde-Batzar egin ditugu (hamar Araban, lau Bizkaian eta zortzi Gipuzkoan). Horietan, nahiz gainerako lan-taldeetan, partaidetza aktiboa izan dute GGKEek.

Gizartean euskararen erabilera sustatzea helburu duen Euskaraldia kanpainarekin bat egin dugu, azaroaren 23tik abenduaren 3ra burututakoa.

Gure egoitza Araban Gasteizko Simone de Beauvoir Elkartearen Etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren (Bizkaiko boluntariorazarako eta partaidetzarako agentzia) Ganbara elkargunean; eta Gipuzkoan, Donostiako beste erakunde batzuekin partekatutako lokal batean. Egoera horrek beste pertsona batzuegana eta publiko zabalago baten gana iristeko aukera ematen digu. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lokal bat dugu kide diren GGKEen materiala gordetzeko.



Bitartekotza-lanak egin ditugu GGKEen eta instituzioen edo bestelako erakunde eta eragileen artean. Kasu batzuetan, eskaerak bideratu ditugu; beste batzuetan, berriz, erakundeek parte har zezaketen jarduera, egitasmo eta espazioetan lagundu dugu. Hala, elkarren arteko ezagutza eta koordinazioa sustatu ditugu:

— Araban, *Eskualdetik Mundura* izeneko prozesu pilotua dinamizatu dugu. Arabako Foru Aldundia GGKEekin batera bere lankidetzak-politika publiko berriari buruz egiten ari den gogoetatik sortutakoa da, eta haren helburua da gizarte-eraldaketari eta elkartasunari laguntzea tokiko eremutik. Institutioak eskatuta, proiektu hori dinamizatu dugu, eta azterketarako eta gogoetarako denbora baten ostean, Amurrión joan da zehazten, zaintzaren gaia ardatz hartuta bitzita erdigunean jarriz. *Eta bitzita erdigunean jartzen badugu?* tailerra izan da azpimarratzeko moduko jardueretako bat. Tania Cañasek eman du, abenduaren 15ean, Amurrión, eta prozesuan parte hartzen ari diren eragile eta erakunde guztiei nahiz herriko emakumei-taldeei zuzendutakoa izan da. Prozesuak aurrera jarraitzen du, baina orain instituzioak zuzentzen du, parte hartzen ari diren Arabako GGKEen laguntzarekin.

Bestetik, zenbait kuadrillak GGKEen laguntzarekin elkartasun-jarduerak antolatzeko egindako zenbait eskaerari erantzun diegu, eta beren beharrak asetzen eta harremanetan jartzen lagundu diegu. Gainera, apirilaren 19an, Gasteizen, *Zer eskain diezaieke Fiarek GGKEei?* izeneko tailerra antolatu dugu. Fiareren ordezkari batek eta kide diren zenbait erakundeek hartu dute parte.

— Gipuzkoan, hango erakunde, sare eta plataforma ugarien arteko koordinazioa mantendu dugu, lurralde deszentralizatu samarra baita, eta ordezkariak sendoak kontzentratzen baitira eskualdeetan. Gipuzkoako zenbait udalekin egiten dugun

lana sustatzen jarraitu dugu. Hain zuzen, elkarte-mugimendu oso aktiboa izatea da lurraldearen ezaugarria, eta horren isla ikusten da batzuetan udal-mailan ere ematen diren praktika onetan.



Formakuntzak eta jardunaldiak

Kide diren GGKEek zer premia dituzten ikusi ondoren eta erakunde publikoek nahiz lankidetzako beste eragile batzuek zer proposamen dituzten ezagutu ondoren, prestakuntza-saio eta jardunaldi hauek jarri ditugu abian, GGKEen jarduna eta eragina sendotzeko:

— Boluntaren *Unikide* programaren helburua da unibertsitateko komunitatea partaidetza sozialarekin konektatzea, lankidetzan, talde-lanean, erantzukizun pertsonal eta kolektiboan, elkartasunean eta beste balio batzuetan sakonduz. Programa horren barruan, GGKEetako boluntariotzari, elkartasun-bidaiei eta udako brigadei buruzko hitzaldiak eman ditugu programara atxikitako unibertsitateetan (EHU, Deustuko Unibertsitatea, UNED eta Begoñako Andra Mari-Irakasleen Unibertsitate Eskola).

— Urtarrilaren 27an, Gasteizko Udalarekin batera, *Geure burua aurkitzen: GGKEak eta migratzaileen elkarteak elkartzeko eta elkar ezagutzeko tailerra* antolatu dugu, bi kolektiboen arteko harremanak ehuntzeko asmoz.

— *Norekin eta zertarako hezi? Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren subjektu kritikoak* jardunaldiak urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean egin dira, Bilbon, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Hegoa erakundeak antolatu dituzte elkarrekin.



— Otsailaren 7an, GGKEak euskararen trebatzeko formakuntzaren bigarren eta hirugarren saioak egin dira Donostian. Helburua da euskararen erabilera sustatzea eta perfektionatzea GGKEetan. Laugarren eta azken saioa ere Donostian egin dira, otsailaren 28an. Bakunek eman ditu saio horiek guztiak.

— Otsailaren 27an eta 28an, Gernika Gogoratzuz, EHUGune, REAS Euskadi eta Mugarik gabeko Ekonomialariak elkarrekin batera, *Bakearen ekonomia, euskal enpresa eta giza eskubideak* izeneko bigarren laborategia antolatu dugu Bilbon.

— Martxoaren 19an, 20an eta 22an, hurrenez hurren Donostian, Bilbon eta Gasteizen, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonentzako babesari buruzko prestakuntza-saioa antolatu dugu CEAR Euskadirekin eta *Brigadas Internacionales de Paz*ekin batera. Vicent Valliesek eman ditu saioak. Aditua da testuingurua aztertzeke metodologietan, prebentzio-estrategien eta babes osoaren antolakuntzan nahiz nazioarteko eraginean.

— Apirilaren 17an, *Lankidetzaproiektuak gizartea erakartzen dituzten istorioetan bihurtu* prestakuntza-praktikoa egin dugu. Iñaki Makazaga nazioarteko lankidetzan espezializatutako kazetariak eman du.

— Apirilaren 20an, Bilbon, hitzaldi garrantzitsu batzuen bidez, jardunaldi bat antolatu dugu Euskadiko GGKEen Koordinakundeak aurreko urteetan egindako *Eusko Jaurlaritzaren enpresak-nazioartekotzerako politikaren analisia: garapenerako politiken koherentzia* ikerketa aurkezteko.

— Urriaren 4an, Bilbon, Bizkaiko Gizarte-Eraldaketaarako Hezkuntza-Taldeak antolatutako bost prestakuntza-saioetako aurrena egin dugu. *Sistematizazioa GGKEetan* izan da haren izenburua, eta Alboanek eman du. Helburua da erakundeek gai horri buruzko beren ezagutzak eta esperientziak partekatzeko aukera izatea, eta sektorea sendotuko duten partekatutako esperientzien sare bat sortzea.

— Abenduaren 11n eta 12an, generoari buruzko erakunde barruko hirugarren jardunaldiak antolatu ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak. *Lankidetzasektoreko sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen kasuen prebentzio- eta jardute-protokoloa* izan da izenburua, eta gaiari buruzko hitzaldi esanguratsuak izan dira.

**JARDUNALDI HAUEN BIDEOAK
GEURE YOUTUBEKO KANALEAN
ESKURAGARRI DAUDE**



— GGKEei bideratutako prestakuntza- eta aholkularitza-prozesu bat antolatu dugu Red Advisor aholkularitza-enpresarekin, datuen babesari buruzko Europako araudi berrira egokitzen laguntzeko erakundeei. Horretarako, prestakuntza-tailer bat egin dugu Gas-teizen, abenduaren 18an.

— Arabako Foru Aldundiaren enplegu-saileko prestakuntza-deialdi baten barruan, *GKEen kudeaketa* prestakuntza-saioa antolatzen lagundu diogu erakunde horri. *CEAM formación* enpresak eman zuen.

Beste eragile batzuek antolatutako kanpoko prestakuntza-saioetan ere izan da Euskadiko GGKEen Koordinakundea, kasu batzuetan entzule gisa eta beste batzuetan partaide, hizlari edo laguntzaile gisa:

— Ekainaren 20an, *Genero-ikuspuntua duten aurrekontuak; pertsonak eta pertsonentzako*

egindako aurrekontuak jardunaldiak egin dira Bilbon. Ekonomisten Euskal Elkargoak eta Mugarik gabeko Ekonomialariak elkarteak antolatu dituzte, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiten dugun esperientziaren berri eman dugu.

— Irailaren 21ean, *La Agenda 2030 a nivel territorial, una oportunidad para un desarrollo sostenible* jardunaldian parte hartu dugu, eta *La cooperación para el desarrollo descentralizada en el marco de la Agenda 2030: riesgos y oportunidades* izeneko hitzaldia eman dugu. Madrilen izan da, Garapenerako GKEen Espainiako Koordinakundeak antolatuta.

— Erkidegoetako beste koordinakunde batzuekin partekatu dugu garapenerako laguntza ofiziala kalkulatzeko gure formula eta lankidetzako aurrekontuen gaineko eragin politikoa: urtarrilaren 27an, Garapenerako GKEen

Espainiako Koordinakundeko Erkidegoetako koordinakundeen taldearen bilera batean izan gara, Madrilen; ekainaren 14an, Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin bildu gara Iruñean; eta uztailaren 17an, Erkidegoetako Koordinakundeen Sarean izan gara.

— Azaroaren 21ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako *world cafe* batean parte hartu dugu Garapenen Iraunkorrerako Helburuen eta 2030 Agendaren esparruan. Erakundeak politiken koherentziari buruzko eztabaida egitera eta jardunbide egokiak partekatzerara animatu gaitu, lankidetzako askotariko eragileen artean koordinazio gehiagoko bide-orri bat egituratu ahal izateko.



Ikerketak

Lankidetzaren sektorearekin lotutako gaiiei buruzko zenbait ikerketa sustatu eta egin ditugu, sektorea sendotu eta hobetzen lagundu nahian:

— *Eusko Jaurlaritzaren enpresak-nazioartekotzerako politikaren analisia: garapenerako politikaren koherentzia* ikerketaren ondorioak ezagutarazten jarraitu dugu: martxoaren 14an, Eusko Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen batzordean, Gasteizen; eta otsailaren 27an, *Bakearen ekonomia, euskal enpresa eta giza eskubideak* izeneko bigarren laborategian, Bilbon. Maiatzaren 16ean ere bilera bat izan dugu Bilbon, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosen talde parlamentarioek eskatuta. Euskadin enpresen eta giza eskubideen zentro bat irekitzeari buruzko legez besteko proposamen baten edukia erkatu nahi zuten, eta gero erregistratu egin zuten proposamen hori Eusko Legebiltzarrean.

— Amaitutzat eman dugu *Giza garapen iraunkorraren ikuspegia duten politiken koherentzia aztertzeko esparru bat definituz* izeneko ikerketa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioen planak eta politikak aztertzen ditu, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik (zehazki, iraunkortasun ekonomiko, ekologiko eta sozialaren ikuspegitik). Bi horietan aurkeztu da lan hori ere, eta Lankidetzaren Euskal Kontseiluari nahiz Bizkaiko PSE-EE, Podemos eta EH Bilduren batzarkideei ere aurkeztu zaie.



Komunikazioa

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikus-pegitik, gure inguruan jarrerak eta jokabideak aldatzen saiatzen gara, beste pertsona askok egindako aldagetei batuz, eskala handiagoko eraldaketa bat eragiteko. Komunikabideen konplizitatearekin, elkartasuna sustatzen dugu herritarren artean, eta bidegabekeriak eta giza eskubideen urraketak salatzen ditugu. Hau da helburu horrekin egiten dugun lanaren zati bat:

— Euskal instituzio garrantzitsuenek lankidetzarekin duten konpromiso-maila erakusteko, egitasmo horien balioa azpimarratzeko nahiz bidegabekeriak eta pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten eragileak salatzeke, komunikabideei bideratutako askotariko ekintzak egin ditugu: prentsaurrekoak eta gosari informatiboak (irailaren 20an, Bilbon, euskal lankidetzaren 30 urteei buruz eta urriaren 15ean, Donostian, pobreziaaren aurkako asteari buruz); jardueri eta gure iritziei buruzko prentsa-oharrak (*Ilargi azpian, mundu zabala errealitate anitz*, *Gasteiz konexioan*, nazioarteko zenbait GGKEtan izandako sexu-jazarpen eta -gehiegikeriei buruzko salaketa, Israelek Palestinako biztanleei egindako erasoak, eta Nikaraguako egoerari buruzkoa); iritzi-artikuluak... Horri esker, askotan agertu gara komunikabideetan, elkarrizketak egin dizkigute eta eragin mediati-koa izan dugu.

— Radio Euskadiko *Hágase la luz* programan kolaboratu dugu astebururo, gure erakundearen nahiz kide diren erakundearen iritzi-zutabeen bidez.



**WEB LOTURA HONETAN
AURKITUKO DUZU EUSKAL
LANKIDETZARI BURUZ
JAKIN NAHI DUZUN GUZTIA:
JARDUERAK, GGKEEI BURUZKO
INFORMAZIOA, LANPOSTUAK,
BOLUNTARIO IZATEKO
ESKAINTZAK, DIRU-LAGUNTZEI
BURUZKO DEIALDI PUBLIKOAK
ETA PRIBATUAK, ARTIKULUAK
ETA LOTURAK, JARDUNALDIAK,
KANPAINAK, ARGITALPENAK,
IRITZIAK...**



**GURE ARGITALPEN
GUZTIAK
WEBGUNEAN DAUDE**

— Kide diren erakundeen lankidetzeta-proiektuei buruzko gure argazki-artxiboa eskaini diegu komunikabideei, *Hegoaldeari dagokionez* izeneko irudien eta mezuen kodearen ikuspegitik egokiak diren irudiak izan ditzaten.

— Larrialdi-egoera bat baino gehiago izan dira munduko zenbait txokotan (ekainean, *Volcán de Fuego* sumendiaren erupzioa Guatemalan, eta, irailean, lurrikara eta ondorengo tsunamia Indonesian), eta kide diren GGKEek egindako lanari buruzko informazioa bildu dugu, gizarteak, instituzioek eta komunikabideek egindako kontsultei erantzuteko eta herritarren elkartasuna bideratzen laguntzeko.

— Astero-astero, *Munduz Mundu* buletin informatibo digitala bidali diegu harpidedunei, eta, haren bidez, asteko jardueren agenda ez ezik, era askotako informazioa helarazi diegu. *Gure Gauzak* barne-buletin berria ere jarri dugu martxan, eta, haren bidez, kide diren GGKEek intereseko barne-informazioa jasotzen dute aldian behin.

— 2017eko memoria eta memoria-bideoa argitaratu ditugu. Argitalpen hori funtsezkoa da, gardentasuna errazten duelako eta kontuak emateko bitartekoa delako ez ezik (eta hala dago jasota gure jokabide-kodean), baita gure jardunaren berri emateko bidea zaigulako ere.




**SARE SOZIAL HAUEN
BIDEZ ERE IZAN DEZAKEZU
GURE JARDUEREN BERRI:
FACEBOOK, TWITTER,
YOUTUBE, VIMEO ETA
IVOOX**



NORTZUK GARA*



Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gus-tatuko litzaiguke: lankideak eta bolun-tarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...



* 2018aren amaieran.

Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Sofía Marroquín, Oxfam Intermón.

Lehendakariordetza: Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. **Idazkaritza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Diruzaintza:** Jaime Bernar, Zabalketa. **Arabako ordezkaria:** Vanesa Cachafeiro eta Saioa Polo, Mugarik Gabe (urteko une desberdinetan). **Bizkaiko ordezkaria:** Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo.

Gipuzkoako ordezkaria: Lurdes Fernández eta Laura Laborra, Medicusmundi Gipuzkoa (urteko une desberdinetan).

Lan-taldeak

Euskadi

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta euskal lankidetzaren politiken urteurrena

Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Eneko Calle eta Andrea Gago, Bakea eta Duintasuna. Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Ainara Cortázar, Zabalketa. Iñigo Odriozola, Tau Fundazioa. Bea Plaza, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Generoa

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Sarai Martín eta Arantza Larizgoitia, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe.

Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Sandra Delgado, ALBOAN. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Cristina Alba eta Greta Frankenfeld, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Nora Ziarsolo, SETEM Hego Haizea. Silvia Santos, Anesvad*. María Bravo, Lumaltik*.

Eragin Politikoak

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza. Sebas Gutteridge, Bakerako Lankidetzaren Batzarra. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Josu Urrutia, Mundukide. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Irune Martínez, OSCARTE. Aitana Uria eta Arantza Acha, Unesco Etxea. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Maitane Franco, Anesvad*.

Ekintza Humanitarioa eta Larrialdia

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Acción Contra el Hambre-Gosearen

Aurkako Ekintza. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Eva Silván, Save the Children. Jaime Bernar, Zabalketa. Geert Demon, SEADen Lagunen Elkarte Araba. Marta Cruz, Oxfam Intermón.

Aurrekontuak

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Marian Uriarte, Medicusmundi Álava/Araba. Conchi Picón, Mundubat. Alicia Aleman, Alboan.

Barne-koherentzia

Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Rafa Ferrer, Zabalketa. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Lurdes Fernández, Medicusmundi Gipuzkoa.

Koherentzia Instituzionala

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. María del Mar Magallón, ALBOAN. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Josu Urrutia, Mundukide. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Hegoa. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu; Gobernu Batzordea ordezkatuz. Irene Molero, Koordinazio Orokorra eta Aurora Hermsilla, Administrazioa (urteko une desberdinetan).

* Erakunde hauek ez dira Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide. Hala ere, parte hartzen dute gure erakundeko lan-talde batzuetan, gure erakundearen sartzeko eskaera egin ostean eta sarrera berrien Jarraipen Batzordeak lehen txostena aldekoa eman ondoren. Eskubide osoko erakunde kide gisa behin betiko sartuko dira, baldin eta bigarren txostena ere aldekoa jasotzen badute, eta kide diren gainerako erakundeek Batzar Nagusian aldeko erabakia hartzen badute.

Bizkaia

Eragin Politikoa

Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Sebas Gutteridge, Bakerako Lankidetzatza Batzarra. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Irupe Martínez, OSCARTE. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat.

Gizarte Eraldakerarako Hezkuntza

Aitor Gómez, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Bea Pérez, Munduko Medikiak. Greta Frankenfeld, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Paula Castro eta Sonia Carrasco, Medicusmundi Bizkaia. Patricia Solaun, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Lianella González, Oxfam Intermón. Mónica Oyarzabal, Proclade Yanapay. Oscar Pérez, Gazteak eta Garapena. Pablo Vidal, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iratxe Palacín, Interred Euskal Herria. Kepa Torrijos, SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo y la Paz. Benjamín Ramos, Bakerako Lankidetzatza Batzarra. Bea Plaza, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Gipuzkoa

Eragin Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Xabier

Martínez eta Lorea Undagoitia, Mugarik Gabe. Amaia Iturri, Interred Euskal Herria.

Gizarte Mobilizazioa eta Komunikazioa

Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa. Ana Mocoroa, Elan Euskadi. Pello Sarasua, Interred Euskal Herria. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Josean Blanco, PROYDE-PROEGA.

Unibertsitate Kritiko Sarea

Kide diren GGKE hauek sare honetan parte hatzen dute:

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa eta Javier Iñiguez, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, Medicusmundi Gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Olaia Larruskain eta Alberto Gastón, Emaús Gizarte Fundazioa. Nerea Aginako, Haurralde Fundazioa.

Donostiako Zero Pobrezia Plataforma

Kide diren GGKE hauek sare honetan parte hartzen dute:

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, Medicusmundi Gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Ana Mocoroa, Elan Euskadi. Miren Beramendi eta Idurre Ormaetxea, Interred Euskal Herria. Leire Estevez eta Ainitze Zabala, Mugarik Gabe. Iñaki Revilla, Proclade Yanapay. Idoia Azpilicueta eta Periko Alkain, PROYDE-PROEGA. Edurne Pujana eta Nora

Silva, Setem Hego Haizea. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa.

Erakundeetan partaidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. Josu Urrutia, Mundukide.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Eva Silván, Save the Children. María del Mar Magallón, ALBOAN. Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. María Viadero, Mugarik Gabe. Josu Urrutia, Mundukide. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Santiago Martínez, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra

Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.

Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Vitoria-Gasteizko Garapenerako
Lankidetzako Elkargunea

Aurora Hermosilla, Administrazioa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzako
eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren,
Calcuta Ondoan.

Talde Teknikoa

Irene Molero, Koordinazio Orokorra. Aurora Hermosilla, Administrazioa. Erika Erkizia, Idazkaritza Teknikoa eta Logistika. Natalia Rodríguez, Eragin Politikoa. Silvia de Gregorio, Generoa eta Sektorearen Indartzea. Maitane Cabeza, Mobilizazioa eta Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntza. Jon González, Komunikazioa. Edurne Rey, Arabako Sareak.

GGKEak

Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzako Batzarra
Baltistan Fundazioa
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas

Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Euskal Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo
FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
Mariaren Lagundia
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-
Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
Medicusmundi Álava/Araba
Medicusmundi Bizkaia
Medicusmundi Gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu

Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektura
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugen Gainetik
Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikak
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
OSCARTE
Oxfam Intermón
Pausumedia
Proclade Yanapay
PROSALUS
PROYDE-PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskal Herria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo y la Paz
Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa
TAU Fundazioa
Tercera Edad para el Tercer Mundo
Tierra de Hombres-Gizakien Lurra
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa

KONTU ARGIAK

Sarrerak 2018	Burutua (€)	%
Kuotak	29.323	7,5
Eusko Jaurjaritza	200.000	48
Arabako Foru Aldundia	30.000	7
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8
Gipuzkoako Foru Aldundia	45.000	11
Billboko Udala	18.000	4
Donostiako Udala	34.150	8
Gasteizko Udala	24.000	6
Jarduerengatik sarrerak	981	0,5
GUZTIZKOA	415.454	100

Gastuak 2018	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	5.899	1
Soldatak	309.588	72
Bidaiak	10.611	3
Kanpo zerbitzuak	90.908	21
Funtzionamendua	11.951	3
GUZTIZKOA	428.956	100

EMAITZA (€)	-13.502	
--------------------	----------------	--

2018KO KONTUAK BNFIX KLZ
 AUDITORES KANPOKO ENPRESAK
 IKUSKATU DITU ETA EGIAZTATU
 DU LEIALKI ISLATZEN
 DUTELA EUSKADIKO GGKEEN
 KOORDINAKUNDEKO
 ONDAREA ETA BERE FINANTZA
 EGOERA. INFORMAZIO GEHIAGO
 WEBEAN





www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
☎ 945 280 745 araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbo**
Tel. 944 150 300 bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
☎ 943 463 526 gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gasteiria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Euskararekin bat



Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.